



Bertsozale Elkartearen Berripapera

	ESPAÑA
	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

# Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2016ko URRIA - 177. zenbakia

## Urriaren 15ean hasiko da Bizkaiko Txapelketaren udagoieneko fasea

**Udabarriko fasea pasata, badator berriro Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. Urriaren 15ean egingo da lehenengo kanporaketa, eta abenduaren 17an jokatu da finala.**

Jauzi egitera dator aurtengo Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. Izan ere, txapelketarekin bertsolariak plazara salto egiten dute, baita euren bertsokeran ere. Horregatik adierazi da zabu baten irudiarekin txapelketa: kulunkatu eta salto egin daitekeelako.

Gainera, birziklatutako elementuekin egindako zabua da. Hori delako bertsoa: eskura dauzkagun baliabideak hartu, eta denok ondo pasatzeko zerbait egitea.

Apirilaren 10ean abiatu zen Berrizen Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Udabarriko fasea eta maiatzaren 22an amaitu zen, Getxon. Bitarte horretan bederatzi saio jokatu ziren.

### 30 bertsolari kanporaketetan

Udagoieneko faseak hiru zati edukiko ditu: kanporaketak, finalurrekoak eta finala. 30 bertsolari hasiko dira kanporaketetan. Horietatik 25 dira Udabarriko fasetik sailkatu direnak eta beste bostak inoiz finalista izandakoak. Azken txapelketako finalistak, berriz, finalurrekoetan hasiko dira.

Kanporaketetako irabazleak zuzenean sailkatuko dira finalurrekoetara, eta finalurrekoetako irabazleak zuzenean finalera. Gainerakoak, puntuazioz sailkatuko dira.

Ohi bezala, txapelketaren xehetasun guztiak internetez jarraitu ahaliko dira. [www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa](http://www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa) webgunean izango da informazio osoa eta Bertsoa sareko plazak ere saioen

berri emango du. Sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) webgunean izango dira eskuragai.

Bizkaiko Bertsozale Elkarteak Txapelketako antolakuntza lanetan ari diren guztien lana eskertu nahi du: gai-jartzaileak, epaileak, komunikazio taldeko kideak zein talde antolatzaileko kideak.

### Kanporaketak

Urriak 15. Mungia  
Urriak 22. Sestao  
Urriak 23. Igorre  
Urriak 29. Leioa  
Azaroak 5. Zaldibar

### Finalurrekoak

Azaroak 19. Markina-Xemein  
Azaroak 27. Basauri  
Abenduak 3. Larrabetzu

### Finala

Abenduak 17. Bilbo



9 saio jokatu dira abendura bitartean. //XDZ



**OIHANA IGUARAN  
BARANDIARAN**  
Alkiza, 2016-IX-08

**Gaia:** Gipuzkoako txapelketaren ondotik plaza asko egiten ari da Oihana Doinua: Haizea dator ifarraldetik

Lehenengo urtean entrenamenduz bapo ibili gera gu ta Harituzen orduz geroztik izen pixka bat dakargu. Nola lanean saiatu geran umil-umil ta ondradu txapelketan'e maila txukuna eta sailkapenak kargu. Konfiatzea neuk sinestea hori zen denen enkargu baino zutaz gain gero jendeak ere sinetsi behar du.

Elikatuta talde giroaz ta gure umore onez entrenatuta mila errimaz bertsoz betetako hormez asko irabazi omen du Oihanak jende gehienak dionez ta gaur artean nere izena behintzat ez zegon inon ez ta askok dio beti eroriz ikasi izan dala oinez eta bertsoetan ezin da ikasi nor bere etxean egonez.

Lan asko eta suertea ere behar nuen saltatzeko ta bapatean Gipuzkoako final haretan sartzeko. Balio izan du gero jendeak ni're kontutan hartzeko ta hola aurtan esaterako gaur Alkizan kantatzeko. Itxaropenak ere badauzkat atzeko bosten antzeko helmugak ez dit ajola baino bide bat det gozatzeko.

## Azalberrituta itzuli da Hitzetik Hartzera

**Urriaren 2an hasi zen Hitzetik Hartzera denboraldi berria. 26 programarekin eta berrikuntzaz betea dator aurtengoa: astero gonbidatu batek bere talaiatik begiratuko dio bertsolaritzari. Dena den, aurten ere plazako jarduna izango da osagai nagusia.**

Hileko lehen igandean itzuli zen Hitzetik Hartzera telebista saio bateranoa. Pasa den ikasturteko ordutegia mantenduta, igande bazkalosteetan izango da ikusgai ETB1en. Interneten ere jarraitu ahal izango da, saioa eman ondoren EITB Nahieran plataforman jarriko baita ikusgai. Aurtengo denboraldiak 26 programa izango ditu.

Formatua berrituta dator programa. Astero-astero gonbidatu bat izango da, eta bere berri emateaz gain bertsoarekin duen loturaz eta, orokorrean, bertsolaritzaz ere jardungo da. Beraz, igandero gonbidatu baten talaiatik jasoko dugu plazako jarduna. Helburua bertsolaritza bizitzeko ahalik eta modu gehien ezagutzea izango da. Astero plazaren bueltan dabilzanak izango dira gonbidatuetako batzuk, beste esparru batzuetan ezagun egindakoak beste batzuk... Baina denek kontatuko digute nola bizi duten bertsolaritza.

### Bertsoaldiak eta txapelketak

Programa azalberrituko den arren, mamiari eutsi egingo dio. Ohikoa den moduan, plazetan jasotako bertsoaldi onenak ekarriko ditu Hitzetik Hartzera astero, eta bertsoaldi historikoez ere izango dute bere lekua.

Horrekin batera, udazken honetan bertsogintzari lotutako bi ekimen garrantzitsu izango ditugu: Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko Xilaba Bertsulari Xapelketa, batetik, eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketa bestetik. Bien jarraipen zehatza egingo da hurrengo asteotan Hitzetik Hartzera saioan.



Hitzetik Hartzera lantaldea.//XDZ

## Kantagintza izango dute helduleku aurtengo Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiek

Xenpelar Dokumentazio Jardunaldien hirugarren edizioa egingo da urriaren 27an Villabonan. Aurreko edizioetan bezala, dokumentazio alorraren inguruko eta, bereziki, Euskal Herriko dokumentazio gaien inguruko gogoetak bultzatu eta ezagutaraztea izango dute helburu nagusi. Orain arte egin diren beste bietan antzerkiaren eta ipuingintzaren dokumentazioaren ingurukoak landu genituen eta, aurten, berriz, kantagintzari ailegatuko zaio txanda.

Euskal kantagintzaren ondarea izenburupean egingo dira jardunaldiak eta bertan tradiziozko kantagintzak dokumentazio mailan duen egoera aztertuko da. Jardunaldia Villabonako Subijana Etxean izango da, 18:30ean hasita. Lau parte-hartzaile izango dira: Jon Bagues (Eresbil), Igone Etxebarria (Labayru), Jean Mixel Bedaxagar (Sü Azia) eta Maite Deliat (Euskal Kultur Erakundea).

Mintzola Ahozko Lantegia, Euskal Kantuzaleen Elkarte eta Koldo Mitxelena Liburutegia dira aurtengo Xenpelar Dokumentazio Jardunaldien antolatzaileak. Ekimen hau antolatzeko orduan Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio

Zentroetako Profesionalen Euskal Elkarte (ALDEE) eta Badok atariaren laguntza izan dugu.



Antzerkigintzari hartuko dio lekuko kantagintzak.//XDZ

# Ahots Baten sormen egonaldian izena emateko epea zabalik

**Egonaldia bertsoan zein antzerkian, kantagintzan eta literaturan dabilzan 15-20 urte bitarteko gazteentzat da, harreman sareak egin ditzaten eta elkarrekin adierazpide ezberdinak esperimentatzeko.**

Abenduaren 26tik 30era Zestoako Sastarrain baserri eskolan gauzatuko da bigarren aldiz Ahots Baten sormen egonaldia. Izena emateko epea zabalik da urriaren 30era bitarte, [www.mintzola.eus](http://www.mintzola.eus) atarian eskaria eginez edota 943 69 38 70 telefono zenbakira deituz.

Ahozko sorkuntza lantzen dabilzan 15-20 urte bitarteko gazteek parte har dezakete sormen egonaldian; hau da, bertsoan zein antzerkian, kantagintzan eta literaturan dabilzan gazteek.

Egunero adierazpide bat lantzeko aukera izango du taldeak eta sortzaile ezagunen bisitak izango dituzte. Bost eguneko egonaldian harreman sarea osatuko dute gazteek eta elkarrekin adierazpide ezberdinak esperimentatuko dituzte.

Iaz bezala, antolatzaile lanetan Mintzola Ahozko Lantegia, Bertsozale Elkartearekin, Ikastolen Elkartearekin, EHAZErekin, Euskal Kantuzaleen Elkartearekin eta ipuingintzan aritu eta aditu direnekin aritu da elkarlanean.

## Martxan da Bertsostruken bigarren edizioa

Irailaren 17an Portugaleten ospatu zen Bertso Eskolen Eguna baliatu zen Bertsostruken bigarren edizioa aurkezteko. Aurtengo irailan hasi eta hurrengo urteko ekainera arte luzatuko da helduen bertso-eskolak protagonista dituen ekimena; hain zuzen ere, helduen bertso-eskolen arteko harremanak sustatzea da Bertsostruken helburu nagusia.

Euskal Herriko Helduen Bertso Eskolen Batzordeak antolatutako ekimena da. Edizio berri honetan Euskal Herri osoko 27 bertso-eskolek hartuko dute parte. Horiek hiruko multzotan daude banatuta eta bertso-eskolen arteko topaketak edo emanaldiak egingo dituzte. Bertso-eskola bakoitzak bere multzoko beste biak hartuko ditu etxean, eta beste bi herrietako bertso-eskolek antolatutako ekitaldira joango da.

Emanaldi horiek edozein motatakoak izan daitezke: bertso-saio formalak, bertso-bazkaria, bertso-afaria, bertso-merendua, bertso-gosaria, bertso-antzerkia, bertso-jolasen bat...

Argi dagoenez, gutziz irekia eta malgua da formatua eta bertso-eskola antolatzaileak erabaki eta antolatzen du emanaldia, beste bertso-eskolarekin adostuta. Parte-hartzaileen kopurua ere ez dago zehaztuta, parte hartuko duten bertso-eskolen ezaugarrietara moldatuko da.

Hauexek dira Bertsostrukeko bigarren edizioan parte hartuko duten helduen bertso-eskolak.

- \*Bortziriak / Zumarraga-Urretxu / Bilbo
- \*Mungia-Larrabetzu / Lasarte-Oria / Debagoiena
- \*Zarautz / Irun / Albe
- \*Gernika-Lumo / Barañain / Oñati
- \*Erniarraitz / Gazteiz / Durangaldea
- \*Goierri / Aramaio / Orio
- \*Markina-Xemein / Sakana / Hernani
- \*Aiaraldea / Leitza-Lekunberri / Ihe
- \*Enkarterri / Iruñea / Harituz



27 bertso-eskolek hartuko dute parte Bertsostruken.//XDZ



## Puntu jarrita

**PATXI IRAOLA GARMENDIA**

Urrun xamarretik bota didak puntu, Txentxo; ez haut ezagutzen, eta adinean alde handi xamarra daukagun arren, elkarrengana hurbilduko gaituk, bizipenak medio.

Bertso zaharretan oinarritzen omen dek hire zaletasuna. Bada, ni ere holaxe zaletu ninuan, Pello Mari Otañoren bertso liburua erosi nian duro baten truke soldaduzkan nenbilela, eta bertako bertso sorta gehienak buruz kantatzen nituen bolada luzea izan nian. Oraindik ere liburua gelako apalean zegok oso-osorik.

Zaldibiko Bentaberri auzora Manuel Lasarte eta Uztapide ekarri zizkian bertsozaria 1956an. Bata bezela bestea, lehen aldiz hantxe entzun nizkian egun osoko jardunean, eta Lasartek zuen bertsoak osatzeko moduarekin hunkituta joan ninuan etxera, erabat harrituta.

Urte gutxitara, Zaldibian baita ere, Lazkao-Txiki somatu nian kantari, Moxo izeneko beste bertsolari batekin. Han, berriz, Lazkao mendiko txikiarekin gelditu ninuan harrituta, "horrela bertsoan egin zitekeenik ere" sinistu ezinda.

Ordurako, neroni ere hasia nengoan lagunartean kantari, batez ere, Legorretako Jainkoaren inguruan, Jesus Eskisabel. Jesus hau, bera ere, kantari aritzen zena noski, behin Manuel Lasarte ekarri zian Legorretara eta kantatzeko orduan Lasartek galdetu: zein det kantu laguna? Eta Jexusek: zu hasi, Manuel, Jainkoak lagunduko dizu.

1966an, Ordiziako Herri Antzokian, txapelketa nagusirako kanporaketa bat antolatu zien, 18 bertsolari aurkeztu eta Joxe Intsausti segurarrak irabazi zian, ni bigarren sailkatu ninuan, eta hura egun handia izan huen neretzat.

1971an Gabiriko Osinalde Saria eta 1974an Idiazabalgo Zepai Saria irabazi berritan, Goierrri inguruan dexenteko taldea osatu genian: Lazkao-Txiki, Intsausti, Igartzabal, Goiburu, Zeberio, Etxaluze, Begiristain...

Garai haietan sariketa-saioek mugitu zien gehienbat bertsolariak, eta guzti haietatik Gabiriko Osinalde saria izango dek indartsuen irau duena; irau, indartu eta zabaldu gainera! Gaurko bertsolari gazteon plazarik maitatuenetako dela entzun diat nere inguruan.

Ibilbide horren joan-etorriak zehatz kontatu ditzakeenetako bat Igartzabal izango dela iruditzen zatak. Hiretzat, Euxebio, hurrengo txanda.

Hauxe, Txentxo, gure garaiko nere bizipenen bilduma.

Besarkada bat gazteoi.

# Koplak

## Xilabako lau finalurrekoak, urrian

Aurrera darrai Xilaba txapelketak eta, kanporaketen ostean, urrian finalurrekoen txanda ailegatu da. Lau finalurreko jokatu dira hilaren 10etik 29ra, Baigorriin, Izturitzen, Aiziritzen eta Larresoron. Bi bueltara jokatu da txapelketako fase hau eta bertatik aterako da azaroaren 12an, Baionan, jokatu den finalean ariko den seikoa.

# Poto-Finixa



Bertsolaritzako emakumeen bosgarren topaketa

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

## Bertsoaroaren edizio berria Iruñean

Udazkeneroko hitzorduari ez dio kale egingo Iruñeko Bertsoaroak. Urriaren 20an abiatuko da eta azaroaren 10ean amaituko. Tartean zortzi emanaldi izango dira, mota guztietakoak: bertso jaialdiak, musika eta bertsolariak dituzten ikuskizunak, performanceak, haurrentzako emanaldiak... Bertsoaroa Nafarroako Bertsozale Elkarteak eta Iruñeko Udalak antolatzen dute elkarlanean.

Kontratazioak eta informazio gehiago:

**Lanku**  
www.lanku.com  
943 26 07 55

**TESTURAK**

TESTOTIK TESTARA ZABALETIX ESTURA

LITERATURA TESTOTATIK ABIAITUTAKO BERTSO SARIA

**OHOLTZA**

BENAT KROLEM

**PETRESKU ETZI EZ ETSI!**

PUBLIZITATEA